

OROITZAPENAK

Adiskide bat hiltzen denean, berarekin bizi izandako oroitzapen eta bizipenik hunkigarrienak pilatzen dira norberaren baitan.

Orain, Josean Artze joan zaigunean, bera haragiz urrundu denean, hurbilago eta handiago sumatzen dugu, haren nortasuna sakonago, haren poesia ere ederrago, esanguratsuago.

Ba une honetan etorri zaizkit burura eta bihotzera berarekin bizi izandako une horietako batzuk.

Eta aukera hau aprobetxatu nahi dut bizipen horietako batzuk oroitzeko eta aurkezteko, bide nabarrez bere eskuetatik jasotzeko suertea izan nuen pare bat poesia argitaratzeko.

Lehenengoa bazkalondoko berriketaldi batekoa da, opari batekin burutu zenekoa.


Karmel aldizkariko 2008ko idazleen bilera ondorengo bazkarian gertatu zen.

Ba, Joxean Artzekin hizketan ari ginela, “Usurbilko elizaren hormak” poesi abestiaz esan nion bukaerako gogoeta oso indartsua zela. Berak esan zuen orain ez dagoela gogoeta horrekin ados.

Horren harira kontatu zigun bere poesia batzuei birmoldaketa batzuk egiten ari zela.

Orduan nik:

-Eta “Txoria txori”?



Josanton Artze "Txoria txori" poemaren gebigarria deklamatzan



Josanton Artze Juan Mari Arrizabalagarekin hitz egiten

Berak:

-Ez! Horri ez! Hori jada ez dek nerea. Hori jada herriarena dek!. Baina poesia horri eranskin bat egin diot.

Nik:

-Joxean, entzun dezakegu eranskin hori?

Jaiki, beribilera joan eta paperak ekarri zituen eta zutik eranskin hori deklamatzan hasi zen. Grabagailua aktibatu eta deklamazioa grabatu nuen. Gainera deklamatzan ari zela argazki batzuk egin nituen.

Gero galdetu nion ea paper horiei argazkia atera al niezaiokeen. Baietz. Eta argazkiak atera eta argazkitik paperera berak idatzi bezala pasatu (Artzeren poesien plastikotasuna paperean ikusita ez al dute eskultura batzuk irudikatzen?).

Eta orain uste dut irakurleekin poesia hau partekatzeko aukera ona dela.

***h**egoak ebaki banizkio
nirea izango zen,
ez zuen aldegingo;
baina bonela
ez zen gehiago txoria izango,
eta nik...
txoria nuen maite.*

aiei, maite dudalako,
nahi ez dudana nahi behar! :
urruntzen ikusi;

urruntzen, ezin hurbilago behar dudana,
maite dudalako.

Urruntzen ikustearen saminak
ni poztu behar...
txoria txori dudalako maite.

03-X-6

amarri hain bere duen,
areago, hain bera den haurraz erditzea,
berezi beharra,
jasanezina litzaioke
saminaren saminez erhotu gabe,
baldin haurrak
sabela hustu dueneko,
aurrean izaki berria ikusteak,
beteko ez balio bihotza...

maite dugun txoria
bihotzean bagenu,
balitz,
maite dugunaren bihotzean bageunde,
bagina,
nora aldegin behar liguke?

maitea urrunduz gero,
nola, ordea, bizi ahal
ni hura gabe,
hura izan eta,
maite dudana izan eta bizi nauena?

bai, gogorra da biziki!...
halere,
txoria txori dudalako maite

nahi ez dudana nahi ukan dudanean
maite dudalako,
horra miraria gertatu:
nahi ez dudana bera
nahi dudana zait bihurtu,
urruntzea bera hurbiltzea...!

maite dudanagan urruna baino urrunagorik,
hurbila baino hurbilagorik maite,
maite dudalako izan da doaike...

Xoriak belarriei bezin ozenki
liliak degie begiei kantu...

Xoriak dioena kantuz
han urrundik,
liliak dio kolorez
hor hurbildik...
lurrinez
eta leuntasunez,
hemen hurbilagotik.

hemen zenuelarik maiteñoa,
hurbil-hurbildik ari zitzaizunean,
ezin urrunagokorik ere zioskun aldi berean:

heriotzak urrundu dizunean,
ezin hurbilagokorik ere ez al dizu esaten orain
hor barrenean,
hurbilenean?

* * *

Behin batean etorri zitzaidan liburu bat oparitu nahi zidala eta. Eta nik eskatu gabe, liburua dedikatzeko luma hartu eta galdetu zidan:

-Hire emaztearen izena?

Eta nik:

-Baina, Josean, badakik nere emaztea orain dela pare bat urte hil zela.

Eta berak:

-Bai, baina hura han (behatza zerurantz zuzenduta) eta hi hemen, oraindik bat zerate.

Eta liburua bioi dedikatu zigun.

Handik lasterrera etorri zitzaidan JosAnton Artze, eta erdi lotsati esan zidan gutxi gorabehera:

-Begira, bazekiat ze pasatzen ariko haizen. Eta barruan sentitzen dituan sentimendu horiek eta agian kanporatzea zail egiten zaizkian pentsamendu horiek adierazi nahi izan dizkiat. Hiri laguntzeko asmoz ematen diat hau. (Gutxi gorabehera oinanean jartzen duen oharreko ideiak).

Eta poesia hau eman zidan.

Benetan hitz sakonak, bihotzetik idatziak eta ederrak, hunkigarriak, oroigarri ezin ahaztuzkoa.

Juan Mari Arrizabalaga

Maiteaz gabetuaren Cresia. II

*hemen geratu den alargunak
hemendik joan arren
hemen diraukion ezkontideari.
(maitea galdu duen oro da alargun)*

heriok jo zaitu;
jo zaitu, eta jo nau;
nola zu jo
ni ere jo gabe, maite!

Zu eta biok
jo gaitu heriok,
eta goitik behera erdibitu,
haragi bat ginenok;
halere ezin izan du
herio bereizleak gu bitu.

haragiz, bai, bereiziko gintuen,
ez gogo-bihotzez,
bat ginenok bat diraugu,
ene bihotzean zaitudane,
zeure bihotzean nauzunez,
bat gaituztenez bat egin gintuen Maitasunak...
ez da sortu maiteminduok bereizteko indarrik
duen heriorik.

joan zatzaizkik begiotatik, joan...
eta ene haragi honek min du
begietan zuena begietatik galtzeaz;
haragian gauden bitartean,
haragiak haragia behar aurrean...
eta zer indarrez, ene!

joan zatzaizkit, joan,
baina ez oso urrun:
nora joan zintezkeen, izan ere,
ene bihotzetik ate?
nora, mugagabea denean bihotza
maitasunak hesi guztiak eraitsirik?

Begi aurrean zintudanean
hor zintudan –bihotza begietan-
zu besterik ez nekusala
begiok zutaz gainezka...

bihotza begietan nuen orduan,
begiak bihotzean ditut orain;
zure haragia lurraren bihotzean duten gisan,
nik bihotzeko lurretan ehortzi baitzaitut,
baina haiek ez bezala,
nik bizitzeko zaitut bihotzean ehortzi.

Nola zara bada zu hilko,
ni bizi naizen artean?
eta nola naiz hilko,
maite zaitudanez gero eta maiteago?

heriotzak ez du inoiz jakin
maiteminduekin zer egin.

Nola diote hil zarela?
nor da, orduan, hemen, bihotz barnean
bizi zaidan hau,
inoiz baino biziago?

Urrundu ere, nora urrundu zara,
urrundu ahala bazara ere barruan barruagotu,
gero eta barruago, barrueneraino?

hegaldatu zatzaizkit begiotatik, bai,
baina, hegaldatu, begiotatik bihotzondora:
bertatik bertagora!

Zuk senar, emazte, ama, ama, alaba, seme... nik adiskide: Iñaki, Joseba, Lourdes, Laura, David, Marian, Nikolas, Haritz, Olatz, Julen, Agustin, Amaia, Xabin... bihotzean. Zure bihotzetik mintzatu natzaiola, zuk zure maiteari esaten diozuna, agian hitzik gabe, ni, urrundik arren, hitzekin ematen saiatu naiz.